

## 26. TXOTXONGILO EGUNAK



### 26<sup>ème</sup> Festival de Marionnettes

Prensa agiria :

**26 Txotxongilo egunak : ohiduran sartu den gertaera !!**

Azaroaren 3. astean (1979tik goiti), AKELARRE elkarteak « **26. Txotxongilo Egunak** ». antolatzen ditu 2015eko azaroaren 17tik 22raino.

Festibala hori Europako Txotxongilo Festibalen erreperitorioan inskribatua da.

Antolakuntza printzipioak ez dira aldatzen :

- lehenik, emanaldi guziak euskaraz dira.
- ondotik, eskolako munduarekiko idekidura atxikia da : 1 100 ikaslek parte-hartuko dute 6 saioetan, 120 heldu-laguntzaileekin.  
Bi emanaldi proposatuak izanen zaie : bat lehen mailarentzat (6-10 urte) « **HALA BAZAN** » **Rosa Martinez Taldeak** emanik; eta bigarrena ama eskolarentzat (3-5 urte) **Txotxongillo Taldeak** « **GALTZA GORRIAK** » eman du;
- azkenik, idekidura bat sorkuntza artistikoari berrikuntza batzuekin, erakusketa bat eta bi emanaldi Mendi Zolan kultur gunean,  
. *berrikuntzei buruz*, Sokoburun plazan iraganen dira azaroaren 21eko merkatua batera (10etan, 11etan eta 12etan) : lehen aldiz, emanaldi berdina baten hiru saio urririk merkatuaren erdian izanen den txosna ttiki baten azpian : **Alas Negras** konpainiak « **LOST LOVE** » emanaldia emanen du, bere originaltasuna emanaldi labur eta hitz-gabekoa izaita da. Preziatu beharko den originaltasina... sinpleki ;  
. « **IGELLEN ITXURALDAKETA** » erakusketa proposée par le célèbre marionnettiste **Corrado Masacci** txotxongilogile ezagunaren partez proposatua, Mendi Zolanen, azaroaren 17tik 28rat ; bisita gidatuekin azaroaren 18 eta 21ean baita-ere azaroaren 284etik 28rat.. Erakusketa aberatsa, irudimenaren mudu zoragarriat eramaiten gaituena, deneri idekia (urririk) ;  
. *eta azkenik*, bi emanaldi antolatuak dira Mendi Zolanen : lehenik, azaroare, 21ean, larunbatez, (arratsaldeko 4etan) **El Tenderete** taldeak « **BASOKO IPUIN TTIPIAK** » emanaldia emanen du, familia osoarekin ikusten ahal dena, oihan batean pasatzen da eta ikusleek errola polit bat izanen dute ; ondotik, azaroaren, 22an, igandez (goizeko 11etan) , festibalaren bukatzeko **Toni La Sal Taldeak** « **ONGI ETORRI OLENTZERO** » emanaldi ederra emanen du : haur eta burasoentzat, Olentzeroren etorrera prestatzeko.